

# Kulturgintza

## K + K = KK

Euskarazko errefracuak esan eta izan elkartu nahi lituzkeen arren, zorionez maisu bikainak izan ditugu susmogintzan (Marx, Nietzsche, Freud), eta badakigu izana estaltzeko erabiltzen dela maiz esana.

JOXERRA GARZIA

ESANARI MEN EGINEZ GERO, esaterako, ez dago politikaririk, kulturari bere biziko garrantzia aitortzen ez dionik. Estrategikoa izaten da, noski, kulturaren aldeko haien apustua.

Izanari begiratuta, aldiz, oso bestelakoak dira kontuak. Artikululu honen izenburuko formulak horixe islatu nahi du, hain zuzen: Kulturari Krisia gehitzea aski dela kulturaren balio estrategikoa aldarrikatzen duen diskurtsoaren benetako balioaz ohartzeko (berdintzaren eskuinera ageri da goiko formulan).

Usain batetik bestera, krisiarena zabaltzen hasi zenetik adi-adi egon natzaie alde batekoek eta bestekoek krisia garaitzeko egin dituzten proposamenei. Egia esan, ez naute harritu batere, tamalez.

Gipuzkoa biziberritzeko bost egitasmo bultzatuko ditu, esaterako, herrialde horretako Foru Aldundiak: denera, milioi bat euro. Izana esanaren pareko balitz, bost egitasmootatik bat behintzat behar zukeen kulturari lotua (%20, ez dut uste gehiegi eskatzea denik).

Baina ez, kultura ez da aipatu ere egiten bost egitasmo horietan. Esan hau, hura eta beste esaten duten arren, ez dute sinesten kulturak hobeto bizitzeko balio duenik. Bizi kalitatea denean kontua, gauza serioetara jo beharra dago, eta, ahal dela, egitasmoei ingelesezko izena erantsi: Donostiako Metroa, Debagoienako Garraioa (Bus Rapid Transport), Biozientzien ordenatzea, Etorkizuneko Etxea (Living Lab), Osasun alorreko Teknologia Berriak.

Horiek dira, antza, benetan axola duten gauzak, hobeto bizitzen lagunduko digutenak, krisi garaian ere bazte-

**Eusko Jaurlaritzak Espainiako Itzulia EAetik pasa dadin nahi du, eta San Mames berria eraikitzeko ere bada dirurik, horiek kontu estrategikoak baitira, koanto!**

rrera ezin utzi direnak. Gipuzkoatik kanpo ere halatsu: Eusko Jaurlaritzak Espainiako Itzulia EAetik pasa dadin nahi du, eta San Mames berria eraikitzeko ere bada dirurik, horiek kontu estrategikoak baitira, koanto!

Bitartean, kulturaren alorrean ari bazara, dena da murrizketa. Orain ez, orain krisian gaude, eta gutzietarako dirurik ez dago.

Esanak esan, lanpernak edo otarrainaren pareko zerbait baizik ez baita kultura: dirua sobera denean primeran dator, bai (eta izugarri luzitzen du), baina dirurik ez denean gabe ere aise pasa daiteke.

Dagoen apurra, kulturaren alde ikus- eta erakusgarria gizentzeko erabiltzen da, aldiak *aldietarako*: musika, zinema, dantza, jazz... Gainerakoa, ikusgarria ez denez, *izoztuta* hobe, garai hobeak noiz etorriko.

Kulturaren alorrean jarduteaz gain euskaltzale sona baldin baduzu, sekulako komeriak izango dituzu. Deituko zaituzte ikusgarri ez den egitasmoren batean lan egiteko, eta esango dizute badakizula krisi garaian gaudela eta ulertuko duzula noski kobratu ohi duzuna baino gutxiago kobratuta lan egin beharra. Eta trantze latza pasatuko duzu, nork eta zuk, lotsa baita norberak ez edukita eman litekeen genero bakarretakoa.

Ikerketa-Garapena-Berrikuntza aldarrikatzen dituzte behin eta berriz krisia gaunditzeko errezetatzat. Kultura, aldiz, berez hazten den basalandarea dela uste dute, antza. Gauzak horrela, ezer onik ez da izango harik eta kulturak ere bere IGB propioa behar duela ohartu eta onartu arte. Hori gabe, formulak beti emaitza bera emango du. ■



G.B.